

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Kultur Etxea Tokiko Erakunde Autonomoa**

Getxoarte laugarren egoitza bekarako deialdiaren laburpena. BDNS (Identif.): 674088.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/674088>):

Lehenengoa. — Helburua

Beka honen helburua da ikerketa-prozesu eta -espazio ez-formalak ikusaraztea haren garapenean bitartekaritza txertatzen duen edozein praktika artistiko garaikideren inguruan, Getxon ekoitzi eta bizitzeko beka baten bidez.

Aukeratutako ikerketa-proiektuaren iraupena bost hilekoa izango da, 2023ko maiatzaren 16tik urriaren 16ra arte.

Bigarrena. — Zenbatekoa

Beka bost mila eurokoa izango da (5.000,00 euro).

Hirugarrena. — Aurkezteko data

Aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena. — Informazioa

Deialdiaren testu osoa Getxoko Udalaren webgunean argitaratuko da.

Getxon, 2023ko otsailaren 1ean. — Getxoko Kultur Etxeko Presidentea, Irantzu Uriarte Gómez